

POZTASUNAREN ZUHAITZA

SARRERA

Poza edo poztasuna pertsona batek bere barnean sentitzen duen zirrara atsegina da (alaitasuna, gozamina, lasaitasuna eta maitasuna sentitzearekin lotuta dago), sufrimendu eta asaldurarik gabea eta pertsonari betetasuna ematen diona. Esaten da poztasuna sentitzen duten pertsonak zoriontsu direla.

HELBURUAK

- Ikasleak pozik sentitzen diren egoerak identifikatzeko gai izatea.
- Poza partekatzea eta partekatze horri buruz gogoeta egitea.

BALIABIDEAK

- Arkatza
- Moztutako orri zatiak (laukizuzenak)
- Paper zuri handia
- Margoak
- Itsasgarria

IRAUPENA

45 minutuko edo ordubeteko saio bat.

GARAPENA

Lehenbizi, irakasleak ikasleei galdetuko die ea zer den poztasuna, nola definitzen duten. Ozenki erantzungo dute. Behin erantzunak emanda, poztasunaren definizioa irakurriko die.

Ondoren, ikasleei orri zatitxoak banatuko dizkie; bakoitzari, bizpahiru. Ikasleek orri zati horietan idatziko dute zer egoeratan sentitzen diren pozik, zerk pozten dituen eta abar.

Ikasle guztiek idazten dutenean, ozenki partekatuko du bakoitzak idatzitakoa, eta denbora-tarte batez horretaz hitz egiten jardungo dute. Horrela bada, pozik jarrazten dituzten egoerez hitz egingo dute: agian, batek baino gehiagok egoera berdinetan sentitzen dute poza...

Azkenean, denen artean, paper zuri handian zuhaitz bat marraztu ikasleek eta margotuko dute; zuhaitzaren adarretan, ikasle bakoitzak bere orritxoak (poza sentitzearekin lotutakoak) itsatsiko ditu.

Guztien artean egindako "Poztasunaren zuhaitza" gelan edo pasabidean jarriko dute.